



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko irailaren 25ean

72 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru Lege Proiektuak:**

—Nafarroako 1999-2002 urteetako Estatistika Planari buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako emendakinak (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru Lege Proposamenak:**

—Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).

#### D SAILA:

##### **Hitzarmenak:**

—Ingurugiro Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzeta-hitzarmena, Nafarroako ubidearen obrak burutu eta finantzatzeko. Osoko Bilkurak baimena emanda (7. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak eta Mozioak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Osasun Sistemaren Estatutupeko Langileen Estatutu Markoari buruzko Lege proiektuaren igorpena gerora dezan. Atzera bidalitako mozioa (8. or.).

—Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egungo mendi eskualdeak 2. Helburu berrian sartzeko defenda dezan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Oronozko zenbait etxebizitza Barne Ministerioari lagatzeko espedienteak geldiaraz dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (9. or.).

—Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da FMko irratizko lizentziak esleitzeko prozesua geldiaraz dezan, Kontuen Ganbararen txostena Parlamentuak ezagutu arte. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Iruñerriko bi FM lizentzien esleipena etetea eskatzen da. Osoko Bilkurak bazter utzia (9. or.).

- Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntza eta Kultura Batzordeak 1998ko ekainaren 26an onetsitako ebazpena bete dezan. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hainbat neurri har dezan Adimen Osasunari atxikitako zenbait zerbitzuren berregituratzea dela-eta. Osasun Batzordeak bazter utzia (10. or.).
- Kurdu herriari buruzko adierazpen politikoa. Bozeramaileen Batzarrak onetsia (11. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Lana banatzeari buruz jarduketaren bat egitea aztertzen ari ote den jakiteko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Abiadura Handiko Trenaren trazadurari buruzko ikerlanaren gaurko egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- A-68ko bidesarrietan beherapen bat lortzeko ematen ari diren urratsei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Nafarroako 1999-2002 urteetako Estatistika Planari buruzko Foru Lege proiektua**

### *AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK*

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako 1999-2002 urteetako Estatistika Planari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu da. Proiektu hori 1998ko ekainaren 24ko 48 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 15ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### 12. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

#### **1. EMENDAKINA**

##### **«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**

##### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

12.1 artikuluko lehen lerroaldea ordeztoko emendakina

Hurrengo testua proposatzen da, dagoenaren ordeztu:

“Salbuespen gisa, eta zer programatan sartzen diren, hartan kokatzeko arrazoiak azalduz, Planen agertzen ez diren eragiketak sartu ahal izan dira Estatistikako Urteko Programetan, beti ere baldintza hauek betetzen badituzte:”

Zioak: Sartze horiei salbuespen izaera ematea, Plana esanahirik gabe geratuko litzatekeelako bestela. Parlamentuak onetsi duen planaren burutzearen gaineko gutxieneko kontrola ahalbidetzea.

#### **2. EMENDAKINA**

##### **«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

##### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Ordeztoko emendakina. Hurrengo testua jarri 12.2 artikuluaordez.

“Lege honetatik ondorioztatzen diren estatistika jarduera horiek burutzeak eta erakundeek eta herritarrek erabiltzeko estatistika-zerbitzu eraginkorra izateko premiak giza-baliabide espezializatu eta bitarteko tekniko, gaur egun eskura ez daudenak, indartzea eskatzen du.

Horiek horrela, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak proposatuta eta Estatistika Kontseilu Nagusiarekin adostu ondoren, aski kontusail ekonomiko jarriko dira, Nafarroako Estatistika Erakundearen funtzionamendu eraginkorrerako, lehenbizi, eta programa honen garapena arintzeko, bigarren, ezarritako epeak laburtuz, beharrezko izanez gero.”

Zioak: estatistika zerbitzu on batek Nafarroakoak bezalako gizarte eta ekonomi modernoetarako duen garrantzia ez dator bat gaur egungo Ekonomi Departamentuak eta Nafarroako Estatistika Erakunde jaio berriak horretarako jarri dituzten baliabideekin. Are gehiago, gaur egun, komunitate baten garapen-maila sailkatzeko, estatistika-garapenaren maila hartzen da adierazletzat, eta Nafarroa, ikuspuntu horretatik, gai honetan dituen baliabideen eta azpiegituraren aldetik, ez da dagokion mailara iristen.

Horiek horrela, aipatu zerbitzuen kontsumitzailerak diren herritar askoren kezka jaso ondoren, ikusirik NEEK proiektu honetako 4. artikuluan hartu duen garrantzia eta azpiegitura egokirik eza, eta Lege honen garapenak ematen dion erantzukizuna, emendakin hau aurkeztu du PSNk, aski baliabide bideratzeko gauza berriak sortu eta egon

daudenak indartzeko, giza-baliabideak eta azpiegitura teknikoak NEEren esku jartzearren, bere zeregina betetzeko eran.

Uste dugu Nafarroak ezin duela, gaur egun bezala, autonomia erkidegoen atzekaldean izan, gai honetan. (Ikus bestela INEtik etorritako estatistika-informazioaren zerbitzariak edo iturriak).

### 17. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

#### 3. EMENDAKINA

##### **«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

##### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

17 bis artikulua sortzeko emendakina.

“Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio lankidetzaz-hitzarmenak egin ditzan doakien estatu-erakundeekin, gure Komunitatean hartutako laginak hobetu ahal izateko, haien banakinetan ateratzen diren estatistikaren adierazgarritasuna hobetze aldera, Nafarroari buruzko ustiapen osoa goak ahalbidetzeko moduan.

Horretarako, Nafarroako Estatistika Erakundeak zehaztu egiten ditu estatuan egiten diren azterketa horietatik zeintzuek behar duten laginketa-indartze hori, eta laginketa-neurria handitzeko lankidetzaz-hitzarmen horiek ordaintzeko baliabide ekonomikoak. Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren pentzutan izanen dira horiek, edo Nafarroako Estatistika Erakundea zeinen menpe, harenetan.”

Zioak: badira gizarte-interes handiko inkestak; adibidez, EPA delakoa edo soldaten inkesta, estatu-mailakoak, eta Nafarroako Autonomia Erkidegoan egiten den lagina ez da nahikoa, eta datu banatu bereki gutxi ahalbidetzen ditu.

Nafarroako Gobernuak eta azterketa estatistikoak egiten dituzten estatu-entitateek lankidetzaz-hitzarmenak egitea nahi da, gure Komunitateko lagina zabaldu ahal izateko eta ustiapen bereki zehatzagoak eskueran izateko.

Horretarako, baliabideak bikoiztu gabe, Nafarroako Gobernuak lankidetzaz-hitzarmenak egin ditzake azterketen laginak zabaltze aldera, Nafarroan duten erabilgarritasuna hobetzeko, izan ere, gure Komunitateari dagozkion banakinak ez baitira oso adierazgarriak izaten, biztanleen aldetik pisu txikia duelako.

### AZKEN XEDAPENARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

#### 4. EMENDAKINA

##### **«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

##### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Beste azken xedapen bat gehitzea, bigarrena hain zuzen.

“Nafarroako Estatistika Erakundeak gehienez ere sei hilabeteko epean aurkeztuko dio Nafarroako Gobernuari erakundearen funtzionamendu-plannaren diseinua, eta baita beharrezko dituen kostuen eta azpiegituren zenbatespena ere, abian jartzeko plan estrategikoarekin batera, Nafarroako Estatistika Erakundearen gure eredia autonomia erkidego aurreratuenek jada garatu dituzten eredu-ekin parekatzeko.”

Zioak: tamalgarria da Nafarroa bezalako komunitate garatu bat atzeratuta izatea, beste erkidego batzuekin konparatuz gero, komunitatearen ekonomiarentzay eta zerbitzuarentzat horrenbesteko garrantzia duen zerbitzua sortzeko garaian.

Gaur egun, INEko web-orrira sartuz gero, adibide bat jartzeagatik, ikus daiteke 10 autonomia erkidegori eskaintzen diela zerbitzua. Nafarroa da zerbitzu hori hartzen ez duen 7 erkidegoetako bat.

Badakigu, jakin ere, EUSTAT edo Institut d'Estadística de Catalunya bezalako erakundeek ospe handia lortu dutela.

Horiek horrela, PSNk beharrezko ikusten du ahalik eta gehien azkartzea Nafarroako Estatistika Erakundearen abiaraztea, funtzionamendua diseinatu, behar duen egitura ezarri eta baliabide ego-kiak eskuratu ondoren, Nafarroako 1999-2002 urteetako Estatistika Planari buruzko Foru Lege hau eraginkor izan dadin.

### ERANSKINARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

#### 5. EMENDAKINA

##### **«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**

##### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Eranskinari gehitzeko emendakina: Planari hurrengo eragiketa estatistikoak gehitzea propo-

satzen da, urteroko hedadura eta aldizkakotasunarekin:

“Planari hurrengo eragiketa estatistikoak gehitzea, urteroko hedadura eta aldizkakotasunarekin:

1.- Nafarroako Barne Produktu Gordinaren osaketa eta balioespena, alorka (nekazaritza, industria eta zerbitzuak) eta azpialorka zatikatua.

2.- Nafarroako Guztizko Errentaren osaketa eta balioespena, hurrengoak bereizita: menpeko lanaren errentak, lan independentearen errentak, enpresarioen etekinak eta kapital errentak.

3.- Nafarroako Guztizko Gastuaren osaketa eta balioespena, hurrengoak bereizita: kontsumo publiko eta pribatua, inbertsio publiko eta pribatua, gordailapenak eta aurrezki inproduktiboa.

4.- Lana dutenen errolda, hurrengoak jarriz lagun bakoitzarendako: sexua, adina, eskola- edo akademi-titulazioa eta betetzen duen lanpostua (tipifikatua).”

Zioak: Planean sartuak izan daitezten.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Biltzarrak, 1998ko irailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkeztutako Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena bazter uztea erabaki zuen. Proposamen hori 1998ko ekainaren

24ko 48 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---

---

**D saila:**  
**HITZARMENAK**

---

**Ingurugiro Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzazko hitzarmena, Nafarroako ubidearen obrak burutu eta finantzatzeko**

*OSOKO BILKURAK BAIMENA EMANDA*

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko irailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, Foru Diputazioari Ingurugiro Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzazko hitzarmena, Nafarroako ubidearen obrak burutu eta finantzatzeko, izenpetzeko eskatutako baimena ematea

erabaki zuen. Haren testua 1998ko irailaren 15eko 68 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---

**E saila:**  
**JABELDURAK ETA MOZIOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Osasun Sistemaren Estatutupeko Langileen Estatutu Markoari buruzko Lege proiektuaren igorpena gerora dezan**

*ATZERA BIDALITAKO MOZIOA*

José María Ezpeleta Martínez Foru Parlamentari jaunak hurrengo mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Osasun Sistemaren Estatutupeko Langileen Estatutu Markoari buruzko Lege proiektuaren igorpena gerora dezan". Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 1998ko irailaren 16an egindako bilkuran, José María Ezpeleta

Martínez Foru Parlamentari jaunak aurkeztu zuen mozioa atzera bidalia izanaren jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen. Mozio hori 1998ko uztailaren 6ko 54 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---

**Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egungo mendi eskualdeak 2. Helburu berrian sartzea defenda dezan**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Biltzarrak, 1998ko irailaren 16an eginiko Osoko Bilkuran, hurrengo ebazpena onetsi zuen: "Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egungo mendi eskualdeak 2. Helburu berrian sartzea defenda dezan". Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, onetsitako ebazpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egungo mendi eskualdeak 2. Helburu berrian sartzea defenda dezan**

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu du gogor defenda dezan egun

2 eta 5b helburuetan dauden mendi eskualdeak 2. helburu berrian sartzea eta beharrezko baliabideak eskuratzea gure Foru Komunitateko ekonomi eta gizarte-kohesioari heltzeko.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu du 2. Helburu berriko eskualdeak behin betiko hautatu arte aurreikusita dauden urrats guztien berri modu jarraian eman diezaion, eta, zehazki, erregioetarako pizgarriei buruzko mapen eta gure Komunitatea uki dezaketen helburu-mapen mugaketarako Ekonomi eta Ogasun Ministerioarekin dauden harremanen bila-kaeraren berri eman diezaion.

3.- Era berean, Nafarroako Gobernua premiatu da eskualde mailako lana erraz dezan eta beharrezko esparrua ezar dezan Nafarroako Gobernuaren alor-politikak elkarri egokitze moduan, halako moldez non mendi eskualdeen beharizan bereziei arreta eginen zaien eta haien berezko garapena bultzatuko den.



## **Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Oronozko zenbait etxebizitza Barne Ministerioari lagatzeko espedientea geldiaraz dezan**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Oronozko zenbait etxebizitza Barne Ministerioari lagatzeko espedientea geldiaraz dezan". Biltzarrak, 1998ko irailaren 16an egindako

Osoko Bilkuran, mozioa baztertu zuen. Mozio hori 1998ko irailaren 15eko 68 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## **Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da FMko irrtati lizentziak esleitzeko prozesua geldiaraz dezan, Kontuen Ganbararen txostena Parlamentuak ezagutu arte**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Biltzarrak, 1998ko irailaren 17an eginiko Osoko Bilkuran, hurrengo ebazpena onetsi zuen: "Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da FMko irrtati lizentziak esleitzeko prozesua geldiaraz dezan, Kontuen Ganbararen txostena Parlamentuak ezagutu arte". Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, onetsitako ebazpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## **Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da FMko irrtati lizentziak esleitzeko prozesua geldiaraz dezan, Kontuen Ganbararen txostena Parlamentuak ezagutu arte**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du FMko irrtati lizentziak esleitzeko prozesua, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak egindakoa, geldiaraz dezan, Kontuen Ganbarak horri buruz eginen duen txostena Parlamentu honek ezagutu arte.

## **Mozioa. Horren bidez, Iruñerrirako bi FM lizentzien esleipena etetea eskatzen da**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari jaunak eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak hurrengo mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Iruñerrirako bi FM lizentzien esleipena etetea eskatzen da". Biltzarrak, 1998ko irailaren 17an egindako Osoko Bilkuran,

mozioa baztertu zuen. Mozio hori 1998ko irailaren 21eko 70 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## **Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntza eta Kultura Batzordeak 1998ko ekainaren 26an onetsitako ebazpena bete dezan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Biltzarrak, 1998ko irailaren 17an eginiko Osoko Bilkuran, hurrengo ebazpena onetsi zuen: "Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntza eta Kultura Batzordeak 1998ko ekainaren 26an onetsitako ebazpena bete dezan". Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, onetsitako ebazpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## **Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntza eta Kultura Batzordeak 1998ko ekainaren 26an onetsitako ebazpena bete dezan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ermitagañako eta, zehazki, José M<sup>a</sup> Iribarren Ikastetxeko D ereduari buruz 1998ko ekainaren 26an onetsitako mozioaren ondoriozko parlamentu-agindua atzerapenik gabe bete dezan.

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hainbat neurri har dezan Adimen Osasunari atxikitako zenbait zerbitzuren berregituratzea dela-eta**

### *OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hainbat neurri har dezan Adimen Osasunari atxikitako zenbait zerbitzuren berregituratzea dela-eta". Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 1998ko irailaren 17an

egindako Bilkuran, mozioa baztertu zuen. Mozio hori 1998ko ekainaren 30eko 51 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## Kurdu herriari buruzko adierazpen politikoa

### BOZERAMAILEEN BATZARRAK ONETSIA

Bozeramaileen Batzarrak, 1998ko irailaren 15ean eginiko bilkuran, hurrengo adierazpen politikoa onetsi zuen:

**Lehena.-** Adieraztea Nafarroako Parlamentua joan den abuztuaren 31n Estanbulen (Turkia) gertatutakoaren aurka dagoela erabat eta egitate horiek gaitzesten dituela, izan ere Bakearen Eguna ospatzen ari zirela berrehun pertsona baino gehiago atxilotu eta hogeita hamar baino gehiago zauritu zituztelako.

**Bigarrena.** Nafarroako Parlamentuak salatzen ditu kurdu herria jasaten ari den egoera eta tratu

ezgizatiarra, eztabaida-gune guztietan nazioarteko komunitatea bakea eskatzen ari den arren.

**Hirugarrena.** Nafarroako Parlamentuak eskatzen du egitate horiek guztiak bukatzea, kurdu herria aintzat hartua izatea eta Europako Komunitateak bitartekari jardutea, bakearen bidea lehen bait lehen urra dadin.

**Laugarrena.** Erabaki hau igortzea Espainiako Gobernuko Lehendakari txit gorenari eta Turkiak Espainian duen enbaxadore jaunari.

Iruñean, 1998ko irailaren 15ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Lana banatzeari buruz jarduketaren bat egitea aztertzen ari ote den jakiteko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak lana banatzeari buruz jarduketaren bat egitea aztertzen ari ote den jakiteko egingandako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 9ko 83. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 31n

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Nueva Izquierda Parlamentari Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak idatziz

erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak enplegu kontuetan eginiko jarduketei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak ez du halakorik egitea pentsatu, ez baita bere eskumena. Gainera, uste du lanaldia murriztea enpresa bakoitzaren negoziaketa markoan hitz egin beharrekoa dela. Kasu horietarako, Nafarroako Gobernuak abenduaren 30eko Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen 71.7 artikuluan ezarritako pizgarri fiskalak aplikatzea aurreikusi du.

Iruñean, 1998ko abenduaren 23an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

---

## **Abiadura Handiko Trenaren trazadurari buruzko ikerlanaren gaurko egoerari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak Abiadura Handiko Trenaren trazadurari buruzko ikerlanaren gaurko egoerari buruz egingandako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 9ko 83 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 31n

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak idatziz erantzuteko galdera egin du "Nafarroako abiadura handiko korridorearen trazadurarako alternatibak bilatzeko eta horrekin zerikusia duten beste zenbait alderdiri buruzko ikerlana"rekin loturiko hainbat punturi buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1. Zein da une honetan Nafarroako korridorearen trazadurarako alternatibak bilatzeko ikerlanaren egoera, kontuan hartuta lan hori 1996ko urrian kontratatu zuela Sustapen Ministerioak laurogei

milioiren truke eta urtebeteko epea zegoela bukatzeko eta entregatzeko?

Aipatutako ministerioak ikerlana 1998ko lehenengo asteetan bukatu eta emanen dela aurreikusi du. Hala ere, hasiera batean, bukatua behar zuen aurreko urrian; atzerapenaren arrazoia zera izan da: ikerlana egiten ari zen bitartean beharrezkotzat jo da sakontzea hasiera batean aurreikusitako ikerlan geologiko-geoteknikoan, Iruñea-Y euskalduna zatian Aralar Mendia zeharkatzeko alternatibak erabaki aurretik. Horretarako zenbait zundaketa egin dira, batzuk 300 metro baino gehiagokoak; guztira 2000 metro baino gehiago zundatu dira. Zundaketa horiek ministerioak egin ditu, horretarako, bere baliabideak erabiliz. Alternatibak bilatzeko ikerlanek, guztira, 150 milioiko kostua izan dute.

2. Entregatuta badago, zer dio Nafarroan zehar Abiadura Handiko Trenak izanen duen trazadurari buruz?

Aurreko erantzunean esan bezala, ikerlana bukatu ez bada ere, Jarraipen Batzordearen bidez badakigu bi fase bereiztu direla: lehenengoa, 1:50.000 eskalan egin da; bigarrena, berriz, 1:20.000 eskalan; gainera, lurzoruak ezaugarri ezberdinak dituela kontutan hartuta eta Iruñetik pasa behar duela nahitaez, bi zati bereiztu dira:

I. zatia: Madril-Zaragoza-Barcelona/Iruñea AH bidea.

II. zatia: Iruñea/euskal Yarekin lotura.

Gainera, Iruñerriak dituen berariazko arazaoak kontutan izanda, Noain-Zuasti zatia 1:5.000 eskalan egin da.

3. Entregatuta ez badago, noiz uste da entregatuko dela?

Lehenengo erantzunean esan den bezala, ikerlana 1998ko lehenengo asteetan bukatu eta emanen dela aurreikusten da.

4. Entregatzen bada, agertuko al da Kontseilaria Batzordean hain garrantzitsua den eduki horren berri emateko? Utziko al du Batzordearen eskura edo bere Departamentuarentzat hartuko al du alternatibei buruzko aipatu ikerlanaren aleren bat?

Departamentuaren asmoa da ikerlan hori eskura izan ondoren, eta horren ondorioak aztertu eta ebaluatutakoan, ezagutzera ematea ahal den estamentu eta instituzio gehienei eta baita iritzi publikoari; beraz, baita Nafarroako Parlamentuari ere.

Ikerlan hori Sustapen Ministerioak finantzatu behar badu ere, hitzartu zen aipatu ministerioak ofizialki emanen ziola dokumentu horren ale bat Nafarroako Gobernuari.

Nafarroako Parlamentuak interesgarri baderitza, eta Sustapen Ministerioaren baimenarekin, zenbait ale gehiago ere eskura daitezke, Nafarroako Gobernuak ordaindu beharko dituenak.

5. Era berean, une honetan, zein da Nafarroako balizko trazadurari buruz dakizuna?

2. galderari emandako erantzunean erantzun dudala uste dut.

6. Sustapen Ministerioak sortutako batzorde mistoak zein eta zenbat bilera eta hizketalditan hitz egin du Nafarroatik eta hurbileko beste komunitateetatik trazadura pasatzeari buruz azken urtean? Batzorde horren funtzionamendua beste galdera baten erantzunean azaldu zenion beste Parlamentari bati.

Gai horretarako sortutako Jarraipen Batzordeak lau bilera ofizial egin ditu, eta aurreikusita dago gutxi barru, ikerlana bukatutzat jo aurretik, beste bilera bat egitea, burutu gabe dauden azken gauza txikiak bukatzeko.

Bestalde, lan bilera tekniko asko egin dira ikerlanaren alderdi zehatzak aztertzeko. Bilera horietan, departamentu honetako teknikariek ezezik, beste departamentuetakoek ere lagundu dute; oso laguntza aktiboa izan da lurraldearen antolamendu eta ingurugiro arloetan, asko zaindu baita gaiarekin zerikusia duten departamentuen arteko koordinazioa.

7. Egoki ikusten al duzu Batzordeko kideei aldian-aldian AHTari buruzko informazioa bidaltzea, behar den zuhertasunez, Nafarroako Aurrekontuetan AHTrako baliatuko diren kontusailei buruz, ezertan kaltetu gabe beste esparru batzuetan eman ditzakezun informazioak?

1998ko Nafarroako Aurrekontuen Aurrerapenean bada kontusail berezi bat Abiadura Handiko Korridore Nafarra izenekoa, eta hamabost milioi esleitu zaizkio.

Aurreikuspen hori egin da, korridore horren errentagarritasun ekonomiko eta sozialari buruzko azterlan sakona egiteko datorren urtean.

Kontutan izanda orain bukatu den alternatibei buruzko ikerlana sakonki aztertu behar dela, eta alderdi asko kontutan hartuta, aurrerapen handia izanen litzateke 1998an balorazio horiek egin eta aurreproiektua 1999 urtearen hasieran idazten hasiko balitz.

8. Berma al daiteke une honetan AHTaren trazadurak Nafarroa zeharkatuko duela? Hala ez bada, zein jarduketa uste duzu burutu beharko lirakeela hori lortzeko?, zein arazo nagusi daude horretarako?

Galdera horri erantzuteko 1993-2007 Azpiegiturei buruzko Plan Zuzentzailea aipatu behar da, nahiz eta planaren burutze epeak gainditu egiten duen plan horren ikusmuga. Plan hori Gobernuak onetsi zuen, 1994ko martxoaren 4ko Ministro Kontseiluan, eta Espainiako Parlamentuak berretsi 1995eko abenduan.

Abiadura handiko tren sarea izanen denari dagokionez, onetsi den eskema 1. grafikoan agertzen dena da, eta horrela dio hitzez hitz: Sevilla-Madril-Zaragoza-Barcelona ardatza definitu ondoren, aurreikusitako jarduketak ondoko funtsezko lanetara zuzentzen dira bereziki:

a) Harreman internazionalak burutu, Euskal Herritik barrena Europako sarearekin bat eginez, euskal Y-a eraikiz eta ardatzarekin lotuz Nafarroako korridoretik.

b) .....

Halaber, helburu berarekin jaso da Europako Batasuneko Garraio Sareari buruzko Planean

(2010 ikusmuga), Trenbide Atalean 2 eta 3 grafikoak.

Hala ere, departamentu hau korridore hori finkatu eta bultzatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak egiten ari da, asmoa izanik maila ezberdinak jabeaztea korridore horrek duen garrantziaz, ez bakarrik Nafarroarentzat, baita Espainian izanen den abiadura handiko sarearentzat eta horrek Europarekin Pirinioen mendebaldetik izanen duen loturarentzat. Nahi dena da, Sustapen Ministerioarekin lankidetzara erraztu eta lehenengo fasean behar diren ikerlan eta proiektuak nahiz hurrengo faseko lanen burutzea ahal den gehiena arindu.

Beste aldetik, jarduketa horiek indartu daitezkeela uste da, Nafarroako talde parlamentariak ekintzak bultzatzen badituzte bai zuzenean, bai kideko taldeen bidez edo atxikirik dauden taldeen bidez Diputatuen Kongresuan, horko Azpiegitura Batzordean eta baita Senatuan ere.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

(Oharra: Aipatu grafikoak Foru Parlamentariaren eskura daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

## **A-68ko bidesarrietan beherapen bat lortzeko ematen ari diren urratsei buruzko galdera**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak A-68ko bidesarrietan beherapen bat lortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 9ko 83 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 31n

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Askotariko Parlamentari Taldeko "Nueva Izquierda" alderdiko Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du A-68ko bidesarrietan beherapen bat lortzeari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer urrats ematen ari den Nafarroako Gobernuak A-68 autopistako bidesarrietan beherapen nabaria lortzeko, Nafarroatik igarotzen den zatian.

Jakina den bezala, Vasco-Aragonesa A-68 autopistaren esleipenaren eskumena Estatuko Administrazioari dagokio erabat.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Sustapen Ministerioko ordezkarekin izaniko aldizkako bileretan gai horri buruz hitz egin du, izan ere Ministerioa izan delako enpresa esleipen-hartzaileekin bidesarrietan balizko beherapen bat egitea negoziatzeko ardua izan duena. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak adierazi du interesa duela bidesari horiek merkeagoak izan daitezen, modu horretan A-68ko ibilgai-

luen kopurua handituko litzatekeelako eta N-232 errepide nazionalakoa gutxituko.

2. Ea Nafarroako Gobernuak asmorik duen, beharrezkoa balitz, Nafarroa zeharkatzen duen A-68 autopistaren zatiaren titulartasunaren transferentzia eskatzeko, Arabako Diputazioak egin bezalaxe, bidesaria modu nabarian jaisteko.

Hasteko, Nafarroako Gobernuak ez du aurreikusi A-68 autopistako Nafarroako lurraldeko tartearen esleipenaren titulartasuna eskatzea.

Hala eta guztiz ere, aukera hori ezin da alde batera utzi Sustapen Ministerioak titulartasun hori beste tarteetan ere eskualdatzeko politikari ekiten badio.

3. Ea Nafarroako Gobernuak komenigarri deritzaion Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jartzeari, bi autonomi erkidegoetatik igarotzen den A-68 autopistaren zatiari trataera bateratu bat eman ahal izateko.

Ez da bidezkoa euskal administrazioarekin koordinazio politika batez pentsatzea Sustapen Ministerioa lagapen horretan eskuduna den bitartean.

Hala ere, azpimarratu behar da A-68 Autopista, Nafarroa baino lehenagoko eta Nafarroa eta gero tarteetan, Errioxatik eta Aragoatik igarotzen dela, eta, beraz, eskumenen transferentzia gertatuz gero, erkidego horiexekin koordinatu beharko genuke aurrena.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat ..... 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 170 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--